



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

4

Ikastetxeko Aldizkaria

Ale hau goi mailako zikloko Administrazio eta Finantzak 1.kurtsoko ikasleek idatzi eta editatua izan da.


Este número ha sido escrito y editado por el grupo de 1º del ciclo de grado superior Administración y Finanzas

OTSAILA / Febrero 2018



Argazkia: 1978

EMAN PEDALARI, EMAN POZA MUNDUARI.....	4
ZER DA ORIENTAZIOA?	5
FORMAKUNTZA DUALA	6
ERASMUS.	9
¿QUÉ ES LA BOLSA DE TRABAJO?	10
USURBILGO LANBIDE ESKOLAREN ORRERA	12
IKASLEEI INKESTA	14
D ERAIKUNTZAKO GELA BERRIA	16
HONDAKINEN KUDEAKETA.	18
OGITARTEKOEN ZERBITZUA	20
DENBORAPASAK.....	21
ZUZENDARIAREN MEZUA.....	23



Esku artean duzuen ikastetxeko azken aldizkari hau, Usurbilgo Lanbide Eskolako Administrazio eta Finantza Goi-mailako lehen kurtsokoek aurrera eramainikoa da. Bertan, aldizkariari kutsu berri bat eman nahirik, ikasle ezberdinek jorratu dituzten eskolako eremu edota zerbitzu ezberdinak azaltzen zaizkigu, datuak edota elkarizketak ditugularik.

Aldizkaria aurrera eramateko, gelakideak binaka elkartu gara, horrela aldizkarian agertuko diren atalak errazago landu ahal izateko. Taldekide bakoitzak bere artikulua egin ondoren, guztiak amankomunean jarri dira, ondoren diseinua emanez.

Hurrengo orrietan honako atal hauek izango dira irakurgai besteak beste: Bizikleta elektrikoaren inguruko artikulua, Orientazio departamendua, Formakuntza Duala, Erasmus-a, ikasleen asebetetzearen datuak, zaborraren kudeaketa, ogitarteko zerbitzua (Patxirekin solasaldia), D eraikuntzako gela berria, Internazionalitatea edota eskolaren historiaren berri izan dezakegu Pili Zubiria, Arantxa Vitoria eta Begoña Etxabek eginiko kontakizunei esker.

Espero dugu aldizkari honekin gozatzea!

**Administrazio eta Finantza
Goi-mailako ikasleak**

Este número de la revista de Usurbilgo Lanbide Eskola que estás viendo ha sido escrito y diseñado por el grupo de 1º Administrativo de grado superior. Hemos trabajado en grupos. Cada grupo ha redactado un tema y después la hemos diseñado.

Esperamos que os guste!!!!

EMAN PEDALARI, EMAN POZA MUNDUARI...

Dakizuen bezala, Usurbilgo lanbide heziketako eskolak hainbat eta hainbat zerbitzu ematen dizkigu. Horietako bat, askok eta askok ezagutzen ez duten bizikleta elektrikoa da. Hau, bertan ikasten edo lanean dabiltzan ikasle naiz irakasleei zuzendutako baliabide bat izan daiteke.

NOLATAN ESKOLA BATEK ZERBITZU HORI ESKAINI?

Eskola honek, denbora asko darama ingurunearen onurekin zerikusia duten proiektuekin lanean. Horietako bat, orain dela urte bat burutu zen. Diputazio eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin akordio bat sinatu zuen energia berriztagarrien inguruko proiektuekin laguntzeko. Bizikleta elektrikoa eskuratzeko proiektua hain zuzen ere.

Aurten arte ez da iritsi hainbeste itxarondako garrario baliabidea. Gaur egun hemen aurkitzen den bizikletak 1.000€ko kostua dauka. Gainera, dirulaguntza bat jaso daiteke EVE-n eskutik, zeinek erraztu egiten duen bizikleta ekonomiko bat erosi ahal izatea.

NORENTZAKO DA ERABILGARRIA?

Edonorrentzat da oso erabilgarria. Autorik ez duen pertsonarentzat, ekonomikoki autoa mantendu ezin duenarentzat, ingurunearen alde zerbait egiteko prest dagoen horrentzat, naturaz gozatzeko prest dagoen arentzat... eskola honetako ikasle, langile, naiz irakasleentzat.

ZEIN ABANTAILA IZAN DITZAKE?

Egunerokoan auto ilaretan denbora galdu beharrik ez izatea, autoa aparkatzeko estresa ekiditea, ingurunearekin gozatea, esfortzu handirik gabe nahi den lekuraino iristea, kutsadurarik ez sortzea... eta hainbat abantaila gehiago.

NOLA LORTU ESKOLAKO BIZIKLETA ELEKTRIKOA?


Eraikin nagusian dagoen atezaintzara joan behar da. Han, segurtasunagatik zure izen abizenak eman eta bizikleta hartu eta utziko duzun ordua

finkatu. Bertan, kandaduaren pasahitza esaten ditzute eta kaskoa ematen dute. Eta jada, bizikleta elektrikoaz gozatea besterik ez da falta...

ZEIN EREMUTAN IBILI NAITEKE?

Ez dago eremu jakin bat finkatuta. Pertsonaren beharrik asebetetzea baita helburua.

Gure inguruetako bide gorriak:



<http://bidegorriak.bardulia.org/-en> aurkitu daiteke argazki hau)

ZER HELBURU DAUDE ETORKIZUNERA BEGIRA?

Bizikleta elektriko gehiago lortu nahi dira etorkizunera begira. Diru gehiago lortu ahal balute, mendiko bizikleta bat erosi nahi du eskolak beste bizikleta mota hau eskolari eta gizarteari erakusteko.. Honela, kirola egin edo inguruneaz gozatzeko aukera gehiago eman dezake.

BITXIKERIAK....

Oier Aranzabal irakasleak dionez, bera, eskolatik irten eta Tolosaraino iritsi da bizikleta honen gainean. 25km/h-ko abiadura hartzeko gai omen da pedalei ia eman gabe. Beraz, ANIMATUUU ZU EREE!



*Irene Osoro
Oihane Zugarramurdi*

ZER DA ORIENTAZIOA?

Orientazio profesionalak, eta lan orientazioa egiten ditugu, ikastetxeko ikasleak, erabiltzaileen estrategien bidez, beraien kompetentzia handitzeko lan merkatu munduan eta lan postu bat bilatzerakoan.

NOIZ JARRIKO DA MARTXAN?

Orientazioa betidanik egin da baina pasa zen urtean plan bat definitu genuen, administrazio-koak eta lanbide heziketaren ezagutzaren euskal institutuak analisi global bat egin zuten ondoren ikusi zuten koordinazio gehiago eta hobeko egin behar zela.

ZEIN DA HELBURUA?

Orientazioaren helburua ikasleen kompetentziak handitzea da. Irakasleak eta programen enkar-gatuak denok estrategia berdinak erabiltzea eta pausu berdinak erabiltzea da. 3 elementu oinarri ditu zeintzuk egiten dugu zerbitzu hau, zer egiten dugu eta nola koordinatzen gara gure artean.

NOLAKO GARRANTZIA EDUKIKO DU ORIENTAZIOAK?

Prestakuntza zentro batean gaude, beraz, edozein kompetentzien garapena inportantea da. Bere helburua gero eta pertsona gehiago sartzea izango da, ikasleak, eskolaren erabiltzaileak eta kanpotik datozen ez araututako prestakuntza ikastaroak egiten ari diren pertsonak. Oinarrizko elementua pertsona hauek orientatzean datza. Ikasleei laguntzen diegu, lana bilatzen eta lan hori ahalik eta gehiago mantentzen.

Zerbitzu hau beti egin izan da baina orain plan baten bidez egiten dugu.

NORK ERAMANGO DU ORIENTAZIOA

Plan honek, esan dugun bezala hiru elementu ditu, eta horrez gain pertsona arduradun bat, galderak azaltzeko eta orientatzeko, pertsona hori ni naiz. (Ana Rekondo FOL departamentuko arduraduna.)

Ana Rekondo, jefa del departamento de FOL, nos presenta el servicio de orientación que va a tratar de unificar la manera de actuar de todos los departamentos de la escuela para dar un servicio de orientación al alumnado, tanto de formación reglada como no reglada, a la hora de buscar trabajo y posteriormente mantenerlo el mayor tiempo posible. Es un servicio que ya se viene ofreciendo, pero de esta manera se unificarán criterios

*Eider Aguinagalde
Nina Berikashvili*



LAN MUNDUAN LEHEN ESPERIENTZIA IZATEKO AUKERA PAREGABEA

ZER DA, ZERTAN DATZA?

Lanbide Heziketako formakuntza dualak, irakaskuntza eta ikaskuntza, ikastetxean eta enpresan, bi lekuetan uztartzen saiatzen da, hau da, klase presentzialak lanarekin batera aurrera eramanez. Modu honetan, ikasleak lan kontratu bat izango du eta ordainetan, soldata bat edo beka bat izango du.

El objetivo principal es compaginar los estudios con el trabajo.

KONTRATU MODALITATEAK:

30 urtetik beherakoentzat

- Lan kontratu bat egongo da.
- Gizarte Segurantzari kotizatuko da, ordainsaria jasoz.
- Lanbide zerbitzuan izena emandako langabetuak izan beharko dute.

30 urtetik gorakoentzat

- Prestakuntza programak egiteko beka jasoko da.
- Ez dago adin mugarik.
- Gizarte Segurantzari kotizatuko da, ordainsaria jasoz.
- Lanbide zerbitzuan izena emandako langabetuak izan beharko dute.

ABANTAILAK

Enpresarentzat

- Langile kualifikatua, bere beharretara egokitua eta bere enpresa-kulturari ikasitakoa prestatzen du.
- Enpresako belaunaldien erreleboa errazten du.
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotetan murrizketak.
- Lanbide emandako konpentsazio ekonomikoa.

Ikaslearentzat

- Benetako lan egoeretan ikasi, urte beteko gutxieneko lan esperientzia lortuz
- Egindako lanaldiari dagokion ordainsaria jaso, kontratuaren eta hitzarmenaren arabera.
- Enplegarritasuna hobetzen
- Gizarte Segurantzari kotizatzen du.

Más del 77% del alumnado que finaliza el programa obtiene un contrato.

PARA MÁS INFORMACIÓN:

WWW.FPEUSKADIDUALA.EUS

LANBIDE HEZIKETA DUALAREN EREDUAK

BI URTE: 2 urteko planen helburua da ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea; 2.400 eta 2.800 ordu arteko iraupena dute osotara. Lehen ikasturtea ikastetxean eta bigarren ikasturtea berriz, ikastetxean eta enpresan, txandakako erregimenean.

HIRU URTE: 3 urteko planen helburua da ekoizpen prozesu konplexuak direla eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien espezializazio bat eskuratzea; 3.400 eta 4.700 ordu arteko iraupena dute osotara. Lehen ikasturtea ikastetxean eta bigarren eta hirugarren ikasturtea berriz, ikastetxe eta enpresan.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Formakuntza dualean parte hartzeko, honako puntuak kontuan izan behar dira eta baita zenbait baldintza bete ere.

- Formakuntza dualera sartu ahal izateko, lehen ikasturteko, lehen eta bigarren hiru-hilabeteko notak kontuan hartzen dira. Hau da, eskuratu-tako noten artean bataz bestekoa egiten da.
- Curriculum landu bat izan, zehatz eta argia izanik, FOL-eko arloan honen inguruko lanketa egiten da, beraz garrantzitsua da hau aprobetxatzea.
- Gaitasun pertsonal batzuk izan behar ditu: arduratsua, aktiboa, autonomia edo erantzukizunak hartzeko gaitasunak.
- Hizkuntzek ere, garrantzi berezi bat hartzen dute, zenbait enpresetan arlo honi garrantzi handia ematen bai diete.

DUALEKO IKASLEAK

Duala egiten ari denekin harremanetan jarri ondoren, konklusio batzuk atera genitzake. Alde batetik, sistema dualaren inguruko ikuspuntu positiboa azaltzen dutela orokorrean, izan ere formakuntza eredu honekin asko ikasten delakoan daude, eta baita enpresa munduan murgiltzeko aukera ederra dela azpimarratuz.

Hala ere esan, gauza askorekin gertatzen den bezala, esfortzu handia eskatzen duen sistema bat dela, denbora asko eskaini behar baitzaio eskolari eta enpresari.

Hau dela eta, garrantzizkotzat jotzen dute formakuntza honetan parte hartu nahi duten ikasleek ikasteko gogoia izatea eta baita arduratsua eta organizatua izatea ere.

Honez gain, Duala egin zuen lehenengoetako ikasle batekin ere jarri gara harremanetan (garai hartan, Hezibi deitua), Mirian Saez-ekin hain zuzen ere, bere ikuspuntua azal dezan. Aipatu, formakuntza hau jaso zuen enpresan jarraitzen duela oraindik lanean.

CURRICULUM
ON BATEN
GARRANTZIA

Gogoratu!

Zure curriculumaren kalitatea eta berarekin proiektatzen duzun irudia, zure **etorkizun profesional**ean eragin dezake.

ESKAINIOZU BERE DENBORA!

FORMACIÓN DUAL: ¿QUÉ ES?

La formación dual de la Formación Profesional trata de compaginar la formación presencial en el Instituto y el trabajo en la empresa. De esta manera el alumno o alumna tendrá un contrato o una beca en su caso.

VENTAJAS:

Para la empresa es una manera de obtener un trabajador cualificado que se amoldará a sus necesidades. También obtienen una compensación económica de Lanbide y una rebaja en la cotización a la seguridad social.

El alumno o alumna adquiere un año de experiencia para su curriculum y en muchos casos es una posibilidad de quedarse trabajando en la empresa

Ze iritzi duzu sistema dualari buruz?

Mirian: Oso sistema eraginkorra iruditzen zait lan-merkatuan esperientzia hartzeko eta enpresen errealitatea lehen eskutik ezagutzeko.

Ze abantaila ikusten dizkiozu dual sistemari eta desabantailak?

M: Abantaila nagusia nire ustez esperientzia irabaztea da. Nire kasuan ez nuen inoiz administrari gisa lan egin eta aukera paregabea izan zen lan-merkatuan sartzeko. Bestalde, oso sistema egokia iruditu zitzaidan eskolan ikasitakoa praktikan jaritzeko, konturatzeko ikasitakoa errealitatearekin bat zihoala.

Desabantaila nagusia dirua dela esango nuke; soldata ez da oso altua. Gainera, formakuntzako urtea amaitzean, enpresak praktika kontratua egin dezake beste bi urtez, beraz, lehen hiru urteetan baldintza ekonomikoak ez dira hoberenak.

Ze gaitasun eduki beharko lituzke zure iritzi duallean parte hartu nahi duen ikasle batek?

M: Nire iritzi, duallean parte hartzeko pertsona arduratsua izan behar zara, ikasketak eta lana uzartu behar baitira ikasturte oso batez. Eta oso

garrantzitsua baita ere, ikasteko gogoia izan behar da, esperientziari etekina ateratzeko pentsaerarekin.

Ze gomendatuko zenioke dualean lan elkarriketen prozesuan hasiko diren ikasleei?

M: Ezin da gauza askorik prestatu, baina gutxienez elkarriketatuko zaituen enpresari buruz informatu (zer egiten duen, zertarako...).

Amaitzeko, bultzatuko al zenuke orain duallean sartu ala ez zalantzan dagoen ikasle bati bertan parte hartzera? Zergatik?

M: Nire esperientzia oso ona izan zen. Duala amaitzean (Hezibi nire kasuan), lanean jarraitu nuen enpresan eta gaur egun kontratu mugagabe bat dut. Beraz, horrela ikusita, bai, bultzatuko nuke dualean sartzera. Baina argi dago bakoitzaren egoera desberdina dela. Lehen esan bezala, baldintza ekonomikoak ez dira oso altuak, beraz, bakoitzak erabaki behar du konpentsatzen dion ala ez. Nire kasuan, merezi zuen.

*Alazne Saez
Aitziber Orbeagozo*



Recogemos el testimonio de Mirian Saez que fue alumna del instituto y participó en la formación dual y continúa en la actualidad trabajando en la misma empresa tras más de tres años.

ERASMUSEKO ARDURADUNEKIN, IMANOL GABELLANES ETA LISA WIEDEMANNEKIN, KONTAKTATU DUGU GAI HAU SAKONAGO EZAGUTU AHAL IZATEKO.

Zer da Erasmus?

Atzerrian praktikak egitea nazioarteko lan eremu batean eskarmentua hartzeko aukera da. Honen bidez, lana topatzeko aukera hobetzen du, beste hizkuntza bat hobetu edota ikasten da, bidaiatu eta beste kulturak ezagutzea eta gainera, esperientzia berri bat bizitzeko aukera izango da.

Zein jarduera eskaintzen ditu?

Erasmus programarako hautaturiko ikasleek Europako beste herrialde bateko enpresa batean hiru eta hamabi hilabeteko epean egin ditzakete praktikak.

Hasiera batean, soilik goi mailako ikasleentzat zegoen pentsatuta, baina orain erdi mailako zikloa egiten ari direnek ere aukera izango dute, bai bertiko eran edo 15 eguneko mugikortasunak eginez.

Jende askok egiten du Erasmus? Eta Nora?

Urtetik urtera ikasle kopurua aldatu egiten da, baina azkenengo urte hauetan 10-12 ikasle inguruk parte hartu dute. Lehentasunezko hiru herrialdeen aukera proposatu ditzakete ikasleek eta saiatzen gara ahal den neurrian eskaera horiei erantzuna ematen.

Adibidez: Polonia, Alemania, Irlanda, Italia, etab.

Hizkuntza maila ezinbestekoa al da?

Bai, gutxieneko maila gomendagarria B1 izango litzateke. Gero eta maila hobea izan, orduan eta enpresetan aukera anitzago edukiko du. Hizkuntza hobetzeko online plataforma bat eta arratsaldeetan errefortzu klaseak eskaintzen dira, ikasle interesatuen eskura.

Bakarrik sentitzen al da norbait han dagoenean?

Ez, herrialde bertan laguntza eskainiko duen pertsona bat dago beti.

Eusko Jaurlaritzak eta Europar Batasunak ematen dituen diru laguntzak nahikoak dira?

Bidaia eta etxeko alokairuaren kostua betetzen ditu eta mantentze kostuen zati bat ere.

Interesaturik zaude?

Honen inguruan informazio gehiago jakin nahi izanez gero honako hauekin jarri zaitezke kontaktuan:

Lisa: lwiedemann@zubigune.org

Imanol: irigabellanes@lhusurbil.eus

Tel: 943 36 46 00-27

*Leire Alkain
Maialen Pedraza*

¿Qué es Erasmus?

Es la oportunidad de hacer prácticas en un país extranjero con la ayuda de una beca para ayudar a sufragar los gastos. Se puede acceder a países como Polonia, Alemania, Irlanda. Etc.



GURE ESKOLAN NOLA ERABILTZEN DA?

Gure eskolan lan poltsa oso garrantzitsua da, Usurbilgo lanbide eskolako alde positiboetako bat, hainbat enprekin kontaktuan daude denbora gutxian. Horretarako, lehendabizi ikasleen Curriculumak jasotzen dira, ondoren administrazioko lan poltsan sartzen dira eta baita eskolaren lan poltsa orokorrean ere.

Lan Poltsan, Usurbilgo Lanbide Eskolan ziklo bat edo hezkuntza ez arautako (Hobetuz, Lanbide...) ikastaro bat egin duen orok izena eman dezake.

IKASLEEN ESPERIENTZIA

Ikasle ohi honek, mekanizatu goi maila bukatu zuen. Titulua emateko praktikak egin zituen, baina enpresak ez zenez langilerik behar, lan poltsan sartzea erabaki zuen. Lan poltsan sartu eta aste batera, Luzuriagako lan eskaintza bat eskaini zioten udaran lan egiteko. Bertan uda osoan lan egin ostean, 11 hilabeteko kontratu bat eskaini zioten eta gaur egun, bertan dago lanean oso gustura.

¿QUÉ ES LA BOLSA DE TRABAJO?

El principal objetivo de la bolsa de trabajo es ayudar al alumnado del Instituto a encontrar trabajo. Mediante este servicio se aúnan las peticiones de las empresas con los perfiles de los alumnos y alumnas más adecuados para ello

LANEAN DAUDEN IKASLEAK

“Batxilergoa bukatu ostean, mekanika arloan sartzea erabaki nuen. Nire burua eza gututa, banekien gustura arituko nintzela, eta halaxe izan zen; klasean giro ona eduki genuen eta oso ondo ikasi nuen. Ondoren, Oiartzungo elkar enpresara bidali zidaten praktikak egitera eta bertan, hasieratik oso ondo moldatu nintzen eta orain, bertan jarraitzen dut lanean 2 urte ondoren”.


ALUMNOS/AS QUE ESTÁN TRABAJANDO

“Tras terminar el Bachillerato. Decidí entrar en mecánica. Conociéndome ya sabía que estaría a gusto, y así fue; en clase teníamos muy buen ambiente y aprendimos muy bien. Después me enviaron a la empresa Elkar de Oiartzun a realizar las prácticas. Desde el principio me integré muy bien y ahora, tras dos años, sigo trabajando en el mismo sitio”.

Ander Mendiburu
Ainara Iruretagoyena

Usurbilgo Lanbide Eskola

Gure historia



Argazkia: 1975 ekoa

SORRERA

1975. urtean martxan jarri zen lehenengo eraikuntza, Aginagako elizan izan zen. Garai batean fraileak bizi izan ziren geletan ematen zituzten klaseak, gaur egun zaharren egoitza eta taberna dauden lekuan. Klaseak tabernako barraren ondoan ematen ziren.

Eraikuntza nahiko zaharra zen, itogin asko zeuden eta baldintzak ez ziren batere onak. FP1 soilik zegoen eta, beraz, 2 urte pasa zituzten bertan. Lehenengo urtean, eskolak ez zuen bere entitate propioa. Klaseak emateko baimena bazegoen baina tituluak emateko ez. Tituluan, Donostian ikasi zutela jartzen zuten. Bigarren urtean baimena lortu zuten.

Ikastetxe hau sortzeko, Usurbilgo udalak asko lagundu zuen, lurrak emanaz. Inplikatuena Felix Aizpurua zinegotzia izan zen, baita Usurbilgo apaiza ere, Benantxio Otaegi. Udarregik eta bertako zuzendaritza taldeak (Antton Zubiaurrek esaterako) ere laguntza handia eman zuten, batez ere ikasleak bideratzeko, hauek ez baitzuten beste aukerarik, lanera joan edo Donostiara joan behar zirelako ikastera.



LEKU ALDAKETA

1978. urtean eskola hau estreinatu zen, han ezin zelako jarraitu zeuden baldintza txarretan. Madrilera eskatu zuten baimena eraikuntza berriak egiteko eta 3 eraikuntza berdinekin egiten zituzten. Pilik dionez: “beste eskola batzuetan egon nintzenean irakasle modura, konturatu nintzen eraikinak berdinak zirela, diseinu berdina zeukatela”.

Garai hartan, ikastetxean egin behar ziren obrak, irakasleen artean egiten ziren. Klasetik kanpora edozein lekutan erre zitekeen, adibidez, bulegoetan egiten ziren bileretan.

Gaur egun atezaintza dagoen lekuan, lehen taberna zegoen, eta bertan bokadiloak saltzen ziren. Eta orain sarrera dagoen lekuan zegoen kontserjea. Inguru guztia zelaia zen. Hasieran hiru eraikin berdinekin zeuden. Jarri ziren lehenengo zikloak administrazioa, mekanika eta elektrizitatea izan ziren. Handik urte batzuetara mantenimendukoa jarri zen eta beranduago energia berriztagarrien zikloa. Gaur egun ikasle naiz irakasleak kotxez ere etortzen dira. Lehen, ordea, denak autobusez etortzen ziren, 7-8 autobusetan leku ezberdinetatik.



IKASLE AGINAGAN... IRAKASLE USURBILEN

14 urterekin hasi ziren ikasten Arantxa, Pili eta Begoña, gaur egun ikastetxe honetan irakasleak direnak. Monjetan ikasten egon ziren gela berean eta Aginagako eskolan ere bai nahiz eta adin berekoak ez izan.

FP2 egitera Donostiara joan behar izan zuten. FP egiten ari ziren bitartean, Arantxak eta Pilik lehenengo eta bigarren mailako ikasleei mekanografiko klaseak ematen zizkieten. Klaseak eman ondoren bulegoan laguntza behar zuten bertan aritzen ziren administrazioan laguntzen. Oso gazteak ziren eta ikasleak ia beraien adinekoak.

FP sortu berria zen eta irakasle asko falta ziren. Euskara zekitenek berehala lortzen zuten lana irakaskuntzan, oposaketak egin gabe. Gerora aurkeztu behar izan zuten oposaketetara.

Hirurak egon ziren irakasle bezala lanean baina ikastetxe ezberdinetan. Arantxa hemen geratu zen irakasle modura orain arte. Geroago etorri zen Pili, eta Begoña duela 3 urte. Beraz, 2014an batu ziren berriz ere, oraingoan irakasle modura.

¿Cuál fue el origen de Usurbilgo lanbide Eskola?

Arantxa Vitoria, Begoña Etxabe y Pili Zubiría profesoras del instituto en la actualidad nos cuentan cómo fue ese origen, ya que ellas fueron partícipes de la primera promoción que estudió en ULE en 1975. En un principio la ubicación fue en Aguinaga en los locales anexos a la iglesia y posteriormente en 1978 se realizó el traslado a los edificios actuales. El ayuntamiento de Usurbil colaboró cediendo los terrenos. El concejal Felix Aizpurua colaboró mucho, así como Benantxio Otaegi, párroco de Usurbil en aquel momento y Antton Zubiaurre.

Nos cuentan muchas anécdotas, por ejemplo, al principio donde actualmente está la conserjería había un bar, donde se vendían bocadillos, bollos y algunas bebidas.

Gaur egun, ikasle izandako lau irakasle daude: Arantxa, Pili, Begoña eta Amaia. Amaiak ere ikastetxe honetan ikasi zuen eta Arantxaren ikaslea izan zen.

ARANTXA ETA BEGOÑAREN ANEKDOTA

Praktiketako tutoreak izan ziren Arantxa eta Begoña, bakoitza bere ikastetxean. Praktiketara joaterako garaian, Arantxak ohitura zeukan lehenengo egunean ikasleekin enpresara joan eta aurkezpena egiteko. Baina, enpresako nagusiak, Arantxari esan zion ikasleak bakarrik joan behar zirela. Bestalde, enpresako pertsona berdinak, Begoñari ikasleak bakarrik ez bidaltzeko eta irakaslea aurkezpena egitera joateko esan zion. Bi irakasleak koadrilakoak direnez, beraien artean komentarioak egitean, egoera bitxia iruditu zitzairen. Gerora jakin zuten zergatia, enpresako pertsona horren alaba, Begoñaren ikaslea zen eta ez zuen nahi bere alaba bakarrik joatea.



Saioa Arzadun
Unai Ituarte

Aurten administraritzako goi mailako ikasleei tokatu zaigu eskolako aldizkaria idaztea. Gure artikulua idazteko ikasleen iritziaren beharra izan dugu, hori dela eta inkesta bat proposatu dugu. Bertako erantzunekin ondorio hauetara iritsi gara.

Eskolako ziklo guztietako ikasleek hartu dute parte. Ikasle gehienek oso gustura daudela adierazi dute eskolarekin.

Grafiko honetan txertatzen den informazioa eskolaren instalazioen egoera da. Ikasleek dioten bezala, oso gustura daude instalazioekin. Berrikuntzak ikusten dira urtero. Administrazian, erabiltzen ditugun ordenagailuekin oso gustura gaude. Baita, beste zikloetako tailerrak, makineria etab.

Zikloetan esperotako informazioa eta formakuntza jasotzen ari gara. Hauei buruzko informazioa aurkitzen da. Baina ikasle batzuek diote (%41,7) informazio falta dagoela.



NONDIK DATOZ IKASLE GEHIENAK?

Eskolara datozen ikasleak EHko zonalde ezberdinetatik datoz:

- Urola kostatik %50
- Buruntzaldea %35
- Donostialdea %14
- Leitzaldea %1.

Gehienek, ahoz-ahoz ezagutu dute eskola %91,7 eta %8,3 eskolako web gunean ezagutu dute.

Se ha realizado una pequeña encuesta entre el alumnado sobre su procedencia y el grado de satisfacción tanto con las instalaciones como el material. En general los resultados son satisfactorios

ESKOLAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

Eskolak zerbitzu asko eskaintzen ditu eta gehienak jendeak ez ditu ezagutzen. Honi buruzko informazioa falta da, ez bakarrik inprimakian azalduz, baizik eta klaseetan edo areto nagusian honi buruzko bilerak antolatuz. Zerbitzu ezagunenak hizkuntzako kurtsoak, eta lan poltsa dira, baina gutxien ezagutzen direnak urrats bat, Zubigune eta Zubilan dira.

Eskolaz kanpoko zerbitzuetako bat, **LAN BILAKETA** da. Zikloak bukatu eta gero, lana bilatzeko harremanetan jarraitzeko aukera ematen du. Beste bat, enpresetan dauden langileen formakuntzan jarraitzeko aukera ematen du.

Hemendik irtenda lan mundua zaila ikusten dugu bertako ikasleek, baina, eskolak beraien zerbitzuak eskaintzen dizkigu. Hau da, **LAN POL-TSA** ikasketak bukatu ondoren lana ahalik eta azkarren aurkitzeko.

Ikasle gehienek lan mundua zaila ikusten duten arren, hemen ikasitako eta lana aurkitu duen jende asko ezagutzen dute. %50 ak adierazi du baten bat ezagutzen duela, beste %25 ak esan du jende asko ezagutzen duela eta azkenik falta den %25 ak esan du ez duela inor ezagutzen.

Sara Hurtado
Leire Mujika



Blend4VET
@blend4vet

Eskolak aukera oso ona eskaintzen du, **NAZIO KANPO PRAKTIKAK** egiteko, eta ikasle gehienak ezagutzen dute. Baina gehienek ez dute zerbitzu honetan parte hartzeko gogorik. Gure ustez aukera oso polita da, eskolak bertako ikasleak gehiago animatu beharko lituzke.

Gure ustez eskolak ematen duen aukera interesgarrietakoa **FORMAKUNTZA DUALA** dela esan dezakegu. Bertako ikasleek zerbitzu honen ezagutza dute, zerbitzu hau eskaintzeko eskolak esfortzu handia egiten duela esan dezakegu, bertako ikasleek aukera hau izateko.



Iñaki Azkue-rekin elkarrizketa, D eraikuntzako gela berriko irakasle arduraduna

Zertarako da gela hau?

Lanbide heziketan, Ethazi sistema (Etekin Handiko Zikloa) planteatzeko apustu bat egin da Usurbilgo Lanbide Eskolan, eta gure zikloan saiatu ginen Ethazi sistema hori aplikatzen, erronka bidez funtzionatzeko. Espazio txikia zegoen, eta konturatu ginen egokitu egin behar zela gela hau; horretarako, mantenuko departamentuan, leku finko bat jartzea erabaki genuen modulu guztiak bertan emateko eta erronkak garatzeko.

Modulu guztiak gela honetan ematen dira?

Bai. Lehen modulu guztiak, eraikuntza desberdinetan ematen ziren, eraikuntza berri honi esker gaur egun, modulu guztiak hemen emateko aukera daukagu.

Beharrezkoa zen gela hau sortzea? Zergatik?

Bai. Gure kasuan, mekaniko eta elektrikoekin tailerra partekatzen genuen, beraz Ethazi sistema aplikatzeko espazio propio baten faltan geunden.

Irakasleentzako egokia al da instalazio hau?

Bai, mundiala. Lanerako lekua, ordenagailu berriak, txoko bat lasai egoteko, kafeteria, tailerra, kanporako irteera. 15 ikasle daude, eta metro karratu gehiago izanez gero hobe!

Irakasleentzat ere ondo dago, bulego bat daukate beraientzat. Klasea ez dutenean, bulegoan egoteko aukera daukate beren lanak egiten.



NUEVA AULA ETHAZI EN EL EDIFICIO D

Hablamos con Iñaki Azkue que nos cuenta las razones que les han llevado a realizar esta transformación. Se ha habilitado un espacio en el que hay una zona con mesas para trabajar, un espacio de descanso, una zona de reuniones y de trabajo para el profesorado y un taller. Este grupo anteriormente compartía taller con otros grupos y tenían que desplazarse entre varias aulas. Ahora disponen de su espacio, sin desplazamientos y además adaptado a la nueva metodología Ethazi. Parece que tanto el alumnado como el profesorado están satisfechos con el resultado.

Ikasle batzuk aukeratu ditugu galdera sorta bat egiteko gela berri honen buruz eta hona hemen beraien iritzia:

Egokia al da gela hau zuretzat?

Julen: Bai, perfektua da, bertara etortzen garelako goizeko 8-tan eta 14:30k arte ez daukagu hemendik mugitu beharrik, ez dakit nola ibiltzen zareten zuek eskolan, baino guretzako behintzat oso ondo dago, tailerra hortxe daukagu, gela, deskantsatzeko tokia, irakasle gela, dena bertan daukagu.

Aitor: Bai, nire ustez aurreko urteko urteetatik hona aldaketa handia egon da hemen, lehen trasteak besterik ez zeuden, baita erreminta zaharrak ere. Orokorrean, aldaketa handia egon da.

Alex: Bai, nahiko txukun dago, egun guztia hemen pasatzen dugu eta ez gara hemendik ateratzen, materiala zerbait faltako litzaiguke, beraz erdi mailara joaten gara haren bila.

Zer hobetuko zenuke gela honetatik?

Julen: Mahaien kokapena. Mahaiak U forman daude eta batzuetan igual txantxa gehiegi sortzen dira, baino bueno ondo dago, ordenagailu eramangarri batzuk ere kalte egiten dute, orduan ordenagailu berri batzuk ekarri ezker eskertuko genuke, baino orokorki gela oso ondo dago, arbel berri bat ere eskertuko genuke, bertan ez bai da asko irakurtzen jajaja.

Aitor: Hasi berri gaude, orduan momentuz ez dut ezer faltan botatzen, kafe makina eta guzti dugu.

Alex: Materiala falta dela, bestela gela nahiko ondo dago.

Gela honetako egokiena zer uste duzu dela?

Julen: Tailerra bertan edukitzea, nik uste, teoria eta praktika segituan ematen direla, momentu batetik bestera baditugu landu, berez saio teorikoak ere oso

praktikoak dira; azkenean, bertan egiten ditugu frogak, praktikak, eta hori oso ondo dago.

Alde txarren bat ikusten al diozu gela honi?

Aitor: Bai, mahaien kokapena, azterketak egiterako momentuan batez ere. Espazioz, aldiz, ondo ze azkenen dena guretzako da.

Zer desberdintasun ikusten duzu aurreko urteko gela eta gela berri honen artean?

Aitor: Ikasteko era aldatzen ari dela, azkenean gaur egun, praktikak egiten dela gehien bat, teoria askoz gutxiago ematen dela, eta tailerrean pasatzen ditugula ordu asko eta gehiago ikasi behar dala, goi mailan gaudelako jajaja.

Aurreko urtean gelaz mugitzen aritzen zintan beti?

Aitor: Bai, alde batetik bestea aritzen ginen, tailerrera bertara etortze ginen, baino beti mugitzen alde batetik bestera.

Nora Legorburu eta Naia Egaña



USURBILGO LANBIDE ESKOLAREN GARBITASUNA GUZTION ARDURA!

Usurbilgo Lanbide eskolan mantenua eta ingurumenaren arduraduna den Juan Andres Rebollori galdera batzuk egin ondoren, segidan aurkituko dugun informazioa eskuratu genuen zentroko hondakinen bilketa eta hauekin ematen den prozedurari buruz.

Modulu guztietan, hondakinen bilketa hiru talde ezberdinetan sailkatzen da:

- Arriskutsuak
- Ez arriskutsuak
- Etxeko hondakinak

Arriskutsuen barnean, pinturak, bernizak, tala-drinak eta antzekoak aurki ditzakegu eta

mekanika alboko prefabrikatu gris edo beltz batean biltzen dira. Eusko Jaurlaritzari ohartarazi behar zaio, honek enpresa berezi bat bidal dezan hondakin hauek biltzeko, jarraipen bat eman behar zaie honelako hondakinei.

Arriskutsuak ez direnek, ez dute kutsatzen eta zentroko azpiko parkinean aurki dezakegun prefabrikatu berdean biltzen dira.

Etxeko hondakinak, egunerokotasunean sortu ohi den zabor mota da, eta bakoitzaren zakarrontzian biltzen dira

Juan Andrés Rebollo, responsable de mantenimiento y medio ambiente del Instituto nos habla de la importancia del reciclaje. En el Instituto además de los residuos normales se recogen residuos de otros tipos como pueden ser barnices, pinturas, taladrinas que requieren un tratamiento específico. También nos cuenta que el Instituto está en proceso de obtener el certificado Ekoscan



Gure zentroaren eta besteen arteko ezberdintasunak

Gainerako eskola askotan, hondakinak, bestelako zabor antzera tratatzen dituzten eta bota egiten ditute, hemen aldiz, ingurumenak kezkatzen gaituen moduan, kudeaketa apropos bat eramaten saiatzen gara. Aprobetxa daitezkeen hondakinak, hauek aprobetxatzen dituzten tokietara eramane eta aprobetxa ezin daitezkeenak, haien tratamendua hoberena den lekura eramane baita. Ahalik eta eragin gutxien edukitzea bilatzen dugu ingurumenarekiko.

Atez atekoaren aurrean izan den erreakzioa
Herri baten antzera eragin zuen, izan ere, hemen, ikasle zein irakasleok, herri desberdinetakoak gara, eta askok ez genuen sistema berri hau ezagutzen, honek agian, hasiera batean nahaste bat sortu zezakeen, batzuk sistema honen alde zeuden eta beste batzuk kontrari, atez atekoaren alde zeudenak errazago ekin zioten sistema berri honi. Niri pertsonalki, ez zait hain modu txarra iruditzen.

Ekoscan

Ingurumenaren kudeaketa bermatzen duen legedia da. Hainbat legedi daude, adibidez Aenor en ISO 14001a edo Europar Batasunaren EMAS, baina hauek azpiegitura sendoa bat eta enpresak ez dituzten baliabide batzuk eskatzen dituzte, non gure inguruko enpresa txiki etaertainek (gehiengoak direla) ezik dituzten bete, horregatik, eusko Jaurlaritzak legedi errazago bat sortu zuen, Ekoscan.



Kudeaketaren zailtasunak

Ekoscan legeditatik betetzen ez den puntuetako bat, orain arte jarraitu ditugun pausoen eta zertifikatua lortzeko planteatu ditugun faseen jendarteratzea izan da.

Horretarako, ingurumenerako talde bat sortu da, non kurtso guztietako ikasleek ere parte hartzen duten. Komisio honen bidez, egindako aurrerapausoek gain, lortutako lorpenak zabalatzeko balioko digu. Gainera, ikasleen kexak eta iradokizunak jasotzeko ere balioko digu

Gaur egun, ikasle gehiago dituen gure zentroak, geroz eta hondakin eta zabor gehiago sortzen dugu, baina esan genezake, proportzioan, hondakin gutxiago daudela kontrolik gabe nolabait esate arren, horregatik, nahiz eta ikasleetan gora egin urtetik urtera, zaborren kudeaketa aurrera doa.

*Kerman Bruño, Joseba Gutierrez
eta Aitor Zabaleta*

Gure eskolan zerbitzu asko ematen dira urtero. Horietako bat errekreo orduan ematen da: Patxi, ogitarteko ezberdinak saltzen ditu. Horrez gain, janaria eta edariak dituen bi makinak betetzen ditu egunero. Beheran azalduko da hari egindako elkarrizketa txiki bat.

Nola hasi zinen etortzen? Zenbat urte daramazu eskolara etortzen?

Orain dela 15 bat urte hasi nintzen etortzen. Orduko zuzendariak bi pertsoneri egin ziguten proposamena eta azkenean nirea aukeratu zuten.

Zenbat denbora ematen zaio gauza guztiak prestatzen?

Goizean ordu bete egoten naiz bokatak prestatzen etorri baino lehen.

Zenbat gauza ekartzen dituzu?

Garrantzitsuena bokatak dira, baina, hortaz aparte, edariaren eta janariaren makinak nik betetzen ditut ere bai.

Zer ordutan agertzen zera eskolan?

Gutxi gora behera 10:45-tan iristen naiz eskolara eta 11:20-etan joaten naiz.



Zenbat bokata egiten dituzu? Zerez egindako bokatak dira?

75 bat bokata ekartzen ditut egunero gutxi gora behera eta lau motako bokatak dira, tortila patata, txistorra, begetala eta solomoa gaztarekin.

Eskolara etortzeaz gain, lana egiten duzu?

Lehen Usurbilgo Antxeta tabernan egiten nuen lana baino duela urte batzuk jubilatatu egin nintzen eta orain eskolako bokatak egiten ditut bakarrik.

Arrakastatsua izan zen zure lehenengo urtea eskolan?

Bokaten salmenta ondo joan zen, baina makinekin arazoren bat izan nuen lapurretak egon zirelako.

Zer aldaketa nabaritu dituzu ikastolan etortzen hasi zinenetik?

Gehien nabaritu dudana desberdintasuna izan da hasiera batean ikasle guztiak mutilak zirela eta gaur egun berriz, neska asko daudela ere ikasten. Baita ere, lehen gazteak "makarragoak" ziren egun baino.

*Iker Ramos
Alex Hurtado*

Unos de los servicios que se ofrecen en el Instituto es la venta de bocadillos en el recreo. Patxi nos ha contado que lleva 15 años ofreciendo el servicio. Trae todos los días alrededor de 75 bocadillos variados. El servicio es muy exitoso.

EUSKAL KANTAK JARRAITU...

1- Ta zure eskutik beldurrik gabe bizi

.....

2- Eta indarrak ongi errotuz

.....

3- Zure begiek mintzen naute

.....
niretzat nahi zinduket.

4- Pausoka gatoz bidean

.....

MARGOTU EZAZU




SUDOKUA

5	3			7			
6			1	9	5		
	9	8					6
8				6			3
4			8		3		1
7				2			6
	6					2	8
			4	1	9		5
				8			7
						7	9

EGIN KALKULUAK

12	+	15	-	7	x	2	+	8	=	
+		x		+		x		x		
17	x	5	+	20	-	9	+	2	=	
x		+		-		+		-		
4	+	18	x	8	+	4	+	10	=	
-		-		+		-		+		
7	x	9	+	25	-	12	+	2	=	
+		x		+		x		x		
3	+	24	-	7	x	4	+	2	=	
=		=		=		=		=		

ZENBAT HIRUKI DAUDE?




USURBILGO LANBIDE ESKOLA

HIZKI ZOPA

Euskal idazleen izen eta abizenak (8)



BILATU IRTEERA



AURKITU 7 DESBERDINTASUNAK



Gizartea aldatzen ari da.

Buruan dut, orain dela hamar urte, nire lagun baten aitona Madrilera bidaian joan zenean esandakoaz, “ez da posible honelako trafiko eta jende mugimendua, zerbait gaizki egiten ari gara”. Aitonak berehala ikusi zuen gizakiaren mugikortasuna aztertu eta kudeatu beharra zegoela.



Gaur egungo ekonomi-

aren atal garrantzitsu bat mugikortasunaren bueltan ezarria dago, kotxe, aeronautika eta tren industria eta nola ez petrolio. Interes handiak daude mundu osoan mugikortasuna kontrolatzeko.

Mugikortasun gailuen munduan aldaketa sakonak datoz. Eguzki energiatik sortzen den energia elektrikoa gero eta modu eraginkorragoan lortzen delako eta petrolioak sortzen duen kutsadurak ingurumenari kalte egiten diolako, gailu elektrikoak izaten hasi dira. Energia berriztagarriek garrantzia izango dute etorkizun laburrean.

Elektronika eta konektibitatea, kotxe autonomia merkatuan da dagoeneko. Mugikortasun gailuek ez ezik, gizakiak ere konektatua bizi beharra sentitzen du. Telefono mugikorren beharra handitzen ari da eta bere erabilera egokia nola egin ikasi behar da. Erabilera egokia egunerokotasunean telefonoa ondo erabiliak ikasten da.

Gure arteko harreman bideak aldatzen ari dira, Internet bidezko komunikazioak gero eta gehiago eta aurrez aurreko komunikazioa gero eta gehiago kostatzen da. Ez dakigu, gizartea ez ezik, ikastetxeak ere aldaketa hauetara behar duen abiaduraz egokitzen ari diren.

Usurbilgo lanbide eskolaren erronka, egungo gizartearen beharretara egokitzea da. Honek aldaketa sakonak dakartza, bai espazio aldetik eta irakasteko metodologia aldetik ere. Ikasleriak ikastetxean gustura sentitu behar du eta irakasleriak gelako aktibitateak modu lasai eta eraginkor batean egitea ziurtatu behar zaio.

Badakigu erronka handia dela baina denon laguntzaz lortuko dugu.

El reto de Usurbilgo Lanbide Eskola es adaptarse a las necesidades de la sociedad actual. Esto conlleva cambios profundos, tanto en cuanto a los espacios como a las metodologías. El alumnado tiene que sentirse a gusto en el Instituto y al profesorado se le debe asegurar que podrá preparar sus actividades de aula de modo tranquilo y efectivo.

Sabemos que es un gran reto, pero con la ayuda de todos y todas lo conseguiremos



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

www.lhusurbil.eus